

9. Kostuen egitura

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak honako hauek dira:

Hasiera batean gure proiektuak inbertsioa handia eskatzen digu, izan ere makina guztiak *leasing* enpresa baten bidez lortu behar ditugu. Gainera, lurraren alokairua ere kontuan hartu behar dugu, horrek diru-iturrien %30 betetzen du. Lurra supermerkatuaren jabetza den edo beste enpresa baten esku dagoen kontuan harturik, prezioa asko alda daiteke. Beraz, enpresa horiekin aurretik hitz egin eta akordio batera iritsi beharko gara. Hala ere hilabetean 500€ baino gehiago ez da izango. Gurekin harremanetan jartzeko, lokal txiki bat alokatzea izango da egokiena, Alemaniako *leasing* enpresekin kontaktuan jartzeko eta bezeroak arazoak baditu bertan egoteko. Horretarako 400€ ordainduko ditugu hilabeteko, zuzenean eta finkoa izango da.

Makina bakoitzak 1200€ balio duela eta 5 makina jarriko ditugula kontuan hartuz, beharko dugun diru kopurua nahiko handia izan beharko da, gutxi gorabehera gure diruaren %40. Kostua murrizteko *leasing* enpresa baten bidez kontratatuko ditugu makinak, eta proiektuak etorkizunean arrakasta badu, erosi egingo genituen. Arazoa da, hemen ez daudela horrelako makinak, beraz, gure bazkide bat Alemaniara joango da, alemana baitaki. Horren kostua 200€ izango da, hegazkina kontuan hartuz. Jakinaren gainean gaude, herrialde hartan horrelako enpresak arrakasta handia dutela, eta aukera ona ikusten dugu, bertatik irabaziak lor ditzakegu. Horrela, hasierako diru kopurua ez da hain handia izango eta amaieran erosteko aukera handiagoa izango da.

Bestalde, publizitatea egiteko erabiliko ditugun foileto eta kartelak ordaintzeko ere diru kopuru bat beharko dugu. Argi dago ez dela iritsiko makinaren kostuaren erdira ere, baina kontuan hartu beharrekoa da. Eskoletara hitzaldiak emateagatik Zarauzko Udalarari zein Diputazioari diru-laguntzak eskatuko dizkiogu, izan ere, ume eta irakasleei gizartearen kutsadurari buruz kontzientziaztera joango gara. Ikusten dugu egoera larria dela eta jendeari begiak irekitzea komenigarria dela. Horrek gure diruaren %15a gastatuko du, 300€ izango dira kartel, foileto zein hitzaldiak.

Beste kostu bat garraioa izango da, Alemaniatik makinak ekarri behar baitira gure lokalera. Garraioaren kostua 200€ izango da 100-150 kiloko. Kostu hau zuzen eta aldakorra izango da, hau ere makina kopuruaren arabera. Gainera, makinaren konponketetarako ere diru kopuru bat gordeko dugu.

Hortaz gain, gure enpresako langileen eta bazkideen soldatak hartu behar dira kontuan, geratzen den %15 erabiliko dugu, hilabetean bataz beste 1000€, beti ere egiten den lanaren arabera. Kostu hau zuzena eta finkoa izango da.

KOSTUA LEHENENGO HILABETEAN:

Lurra	500€	x1	500€
Lokala	400€/hilabeteko	x1	400€

Makinak	1200€/bakoitzeko	x5	6000€
Publizitatea	300€	x1	300€
Garraioa	200€	x5	1000€
Soldata	1000€/pertsonako (bataz beste)	x5	5000€
Bidaia Alemaniara	200€	x1	200€